Espedientea / Expediente	2026-
Kontratua / Contrato	Aldibereko interpretazio zerbitzua / Servicio de interpretación simultánea
Erakundea / Entidad	Berrizko Udala / Ayuntamiento de Berriz

BERRIZKO UDALAREN ALDIBEREKO INTERPRETAZIO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE INTERPRETACIÓN SIMULTÁNEA DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIZ**
1. Kontratuaren xedea	**1. Objeto del contrato**
Kontratu honen xedea da Berrizko Udalak egiten dituen osoko bilkuren eta batzorde informatiboen aldibereko interpretazio-zerbitzua emateko balioko duten baldintza teknikoak ezartzea, saio horietan hizkuntza ofizial biek (euskara eta gaztelania) elkar ulertzea bermatze aldera. Interpretazioa aldiberekoa izango da, eta norabide bietan, hau da, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara, beharraren arabera. Udalak ezin die osorik aurre egin interpretazio-lan horiei baliabide propioen bidez, eta, beraz, premia hori artatuko duen zerbitzua kanpoan kontratatu behar du.	El objeto del presente contrato es establecer condiciones técnicas para la prestación del servicio de interpretación simultánea en sesiones plenarias y comisiones informativas que celebre el Ayuntamiento de Berriz, garantizando la comunicación entre las lenguas oficiales (euskera y castellano). La interpretación será simultánea en ambas direcciones, euskera-castellano y castellano-euskera. El Ayuntamiento no puede hacer frente con sus propios medios a todas las labores de interpretación, por lo que ha de contratar en el exterior un servicio que supla dicha demanda.
2. Zerbitzuaren ezaugarriak	**2. Características del servicio**
2.1. Deialdiak eta aurretiko dokumentazioa	**2.1 Convocatorias y documentación previa**
Saio bakoitzaren deialdia bitarteko elektronikoen bidez bidaliko zaio enpresa esleipendunari ahalik arinen. Gutxieneko jakinarazpen-epeak honako hauek dira: • Ohiko osoko bilkurak eta batzorde informatiboak: gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin. • Ezohiko osoko bilkurak: gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin.	La convocatoria de cada sesión se enviará a la empresa adjudicataria por medios electrónicos con la mayor antelación posible. Los plazos mínimos de preaviso son los siguientes: • Plenos ordinarios y comisiones informativas: con un mínimo de 48 horas de antelación. • Plenos extraordinarios: con un mínimo de 24 horas de antelación.

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Premiazko ezohiko bilkurak: ahalik arinen, kasuan kasuko egoeraren premiari jarraikiz.

Jakinarazpenarekin batera, Udalak gai-zerrenda eta puntuekin lotutako dokumentaziorik garrantzitsuena bidaliko du. Dokumentazio hori konfidentziala izango da eta lanbide-sekretuaren menpe egongo da.

2.2. Langileak

Enpresa esleipendunak bermatu beharko du saio guztietara bertaratzeko eta interpretazio-zerbitzua emateko behar diren langileak dituela, bai ohiko bilkuretan, bai ezohikoetan, bai eta premiazkoetan ere.

Atxikitako interprete guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, eta I. Eranskinaren bidez egiaztatuko dira:

- Euskararen C2 maila edo baliokidea, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera edota Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin parekaturiko tituluaren bidez. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuak izango dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, bai eta ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsitako kasuak ere.

- Honako titulazio hauetatik bat: Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua edo Lizentziatura; Euskal Filologiako Gradua edo Lizentziatura interpretazio-lanetan 100 eguneko esperientzia dokumentatuarekin; edo Euskal Ikasketetako Gradua esperientzia bera izanik.

Baldintza horiek betetzen ez dituen interpreterik aurkezten duen eskaintza baztertua izango da.

Halaber, adjudikaziodunak Udalarekin kudeaketaz eta komunikazioaz arduratuko den

- Sesiones extraordinarias urgentes: con la mayor antelación posible atendiendo a la urgencia de la situación.

Junto con el preaviso, el Ayuntamiento remitirá el orden del día y la documentación más relevante relativa a los puntos del mismo. Dicha documentación tendrá carácter confidencial y quedará sujeta al deber de secreto profesional.

2.2. Personal

La adjudicataria deberá garantizar que dispone del personal necesario para personarse y prestar el servicio de interpretación en todo tipo de sesiones, ordinarias, extraordinarias y extraordinarias urgentes.

Todo el personal intérprete adscrito al contrato deberá cumplir los siguientes requisitos, que se acreditarán mediante el Anexo I:

- Nivel C2 de euskera o equivalente, acreditado conforme al Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, o mediante título equiparado al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. De acuerdo con el Decreto 47/2012, de 3 de abril, se tendrán en cuenta los estudios oficiales realizados en euskera y los supuestos exentos de acreditación mediante certificados.

- Una de las siguientes titulaciones: Grado o Licenciatura en Traducción e Interpretación, con experiencia documentada de 100 días en labores de interpretación; o Grado de Filología Vasca con experiencia documentada de 100 días en labores de interpretación.

La oferta que incluya intérpretes que no cumplan estos requisitos será excluida.

Asimismo, la adjudicataria designará a la persona encargada de la gestión y

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

pertsona bat izendatuko du. Enpresa esleipendunaren eta Berrizko Udalaren arteko komunikazio guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira.

Adjudikaziodunak zuzenean egikarituko ditu bere langileekiko lan-antolakuntza eta zuzendaritza-ahalmenak. Berrizko Udalak ez du izango inolako lan- edo administrazio-harremanik nahiz harreman zibilik adjudikaziodunaren langileekin.

Egikaritze-baldintza bereziei dagokienez, enpresa adjudikaziodunaren interpreteek hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiliko dute interpretazio guztietan. Gainera, interpretatzaile-taldearen osaera paritarioa bermatu beharko da: lanen % 50 gutxienez emakumeei esleituko zaie.

2.3. Baliabide teknikoak

Interpretazio-lanak egiteko behar diren baliabide teknikoak (kabinak, hargailuak, mikrofono sistemak eta abar) Berrizko Udalak emango ditu. Adjudikaziodunak ez du ekipo propioa eskaini beharko, eta Udalaren ekipamenduaren erabilerak ez du erantzukizunik sortuko adjudikaziodunarentzat ekipoaren funtzionamenduari dagokionez, betiere ekipoen erabilera arauak betez gero. Interpreteak berak eroan beharko ditu lana behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen beste lan-tresna batzuk.

2.4. Fakturazioa

Fakturak elektronikoki igorriko zaizkio Berrizko Udalari, hiru hilean behin, aldi horretan eman diren zerbitzuak jasota. Fakturan jaso beharko dira saio bakoitza eman den eguna eta saio mota

comunicación con el Ayuntamiento. Todas las comunicaciones entre la empresa adjudicataria y el Ayuntamiento de Berriz, tanto orales como escritas, se realizarán en euskera.

La adjudicataria ejercerá directamente las facultades de organización y dirección del trabajo de las personas a su cargo. El Ayuntamiento de Berriz no mantendrá relación jurídica, laboral, civil ni administrativa alguna con el personal de la empresa adjudicataria.

En cuanto a las condiciones especiales de ejecución, la empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista e inclusivo en todas sus interpretaciones. Asimismo, se deberá garantizar la composición paritaria del equipo de intérpretes: al menos el 50 % de los trabajos serán encomendados a mujeres.

2.3. Medios técnicos

Los medios técnicos necesarios para la interpretación (cabinas, receptores, sistemas de micrófono y similares) serán aportados por el Ayuntamiento de Berriz. La adjudicataria no estará obligada a disponer de equipamiento propio, y el uso del equipamiento municipal no generará responsabilidad para la adjudicataria respecto al funcionamiento de los equipos, siempre que se haga un uso adecuado. El personal intérprete deberá llevar el resto de herramientas que considere necesarias para realizar su labor correctamente.

2.4. Facturación

Las facturas serán expedidas electrónicamente al Ayuntamiento de Berriz trimestralmente, recogiendo los servicios prestados en dicho periodo. Aparecerán en la factura la fecha de prestación de cada servicio y el tipo de sesión.

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

3. Prezioak	3. Precios
- Zerbitzu kopurua: interpretazio-zerbitzua hamazortzi (18) saiotan erabiliko da: hamar (10) batzorde informatibo, sei (6) ohiko osoko bilkura eta bi (2) ez-ohiko osoko bilkura. Udalaren antolamenduaren eta behar espezifikoen ezaugarriak aintzat hartuta zehaztu da kopuru hori.	- Número de servicios: el servicio de interpretación se empleará en un total de dieciocho (18) sesiones: diez (10) comisiones informativas, seis (6) plenos ordinarios y dos (2) plenos extraordinarios, determinados en base a la organización y necesidades específicas del Ayuntamiento.
Ezin da aurrez jakin zenbat ezohiko bilkura izango diren; alabaina, erakundearen historikoari begira bi saio aurreikusi dira, modu kontserbadorean.	Si bien resulta imposible determinar de antemano el número de plenos extraordinarios, se realiza una estimación conservadora de dos sesiones basada en el histórico de la institución.
- Saioen iraupena: nahiz eta ezinezkoa den aurreikustea bilkura bakoitzaren iraupena, proposamen ekonomikoaren ondorioetarako gehienez benetako lau (4) lan-orduko saioak izango dira, hau da, lanaldi erdia, AICEk sektore-estandarretan finkatutakoari jarraikiz.	- Duración de las sesiones: si bien no es posible prever la duración de cada sesión, a efectos de la propuesta económica se prevén sesiones de hasta cuatro (4) horas de trabajo efectivo, es decir, media jornada, conforme al estándar sectorial establecido por la asociación AICE.
- Prezio unitarioa: BEZik gabeko gehieneko prezioa 490 eurokoa izango da saio bakoitzeko, saio mota zeinahi ere den (ohikoa, ezohikoa eta premiazko ezohikoa).	- Precio unitario: el precio máximo sin IVA será de 490 euros por sesión, con independencia del tipo de sesión (ordinaria, extraordinaria o extraordinaria urgente).
Eskaintza, beraz, zehaztapen horiek kontuan hartuta egingo da, eta enpresa lizitatzaileek hobekuntzak proposatu ahal izango dituzte.	La oferta se realizará teniendo en cuenta dichas especificaciones y las empresas licitadoras podrán proponer mejoras.
- Bertan behera uzteagatiko konpentsazioak: • Saioaren aurreko 7 egunen barruan jakinaraziz gero: tarifaren % 50. • Saioaren aurreko 2 egunen barruan jakinaraziz gero: tarifaren % 100. AICE erakundeak ezartzen dituen gidalerroei jarraikiz ezarri dira konpentsazio horien baldintzak.	- Compensaciones por cancelación: • Dentro de los 7 días previos a la sesión: 50 % de la tarifa. • Dentro de los 2 días previos a la sesión: 100 % de la tarifa. Las condiciones de compensación se establecen según las recomendaciones de AICE.
4. Kontratuaren gehieneko aurrekontua eta balio zenbatetsia (VEC)	**4. Presupuesto máximo y valor estimado del contrato**
Lizitazioaren gehieneko aurrekontua zehazteko, zerbitzua emango den saio kopurua eta zerbitzu	Para establecer el precio máximo de licitación, se multiplica el número de sesiones en que se

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

bakoitzaren prezio unitarioa biderkatu dira, hau da:
- 490 € × 18 saio = **8.820 € (BEZ gabe)**
- 8.820 € + % 21eko BEZa = **10.672,20 € (BEZ barne).**

´prestará servicio con el precio unitario del mismo, es decir:
- 490 € × 18 sesiones = **8.820 € (sin IVA)**
- 8.820 € + 21 % iva = **10.672,20 € (IVA incluido).**

Kontratuaren balio zenbatetsia (VEC), gehieneko iraupena (4 urte) luzapenak kontuan hartuta:

El valor estimado del contrato (VEC), considerando la duración máxima (4 años) incluidas sus prórrogas:

VEC = 35.280 € (BEZ gabe, 4 urte)

VEC = 35.280 € (sin IVA, 4 años)

Saio mota *Tipo sesión*	**Saio kop.** *Nº sesiones*	**Prezio unit.** *Precio unit.*	**Urteko zenbat.** *Importe anual*	**4 urte** *4 años*
Batzorde informatiboak *Comisiones informativas*	10	490 €	4.900 €	19.600 €
Ohiko osoko bilkurak *Plenos ordinarios*	6	490 €	2.940 €	11.760 €
Ezohiko osoko bilkurak *Plenos extraordinarios*	2	490 €	980 €	3.920 €
GUZTIRA *TOTAL*	**18**	**–**	**8.820 €**	**35.280 €**

VEC prozedura irekia erabiltzeko aukera ematen duten mugen barruan dago.

El VEC se sitúa dentro de los límites que permiten la utilización del procedimiento abierto.

5. Kontratuaren indarraldia

Kontratua formalizatzen den egunetik urtebetekoa izango da iraupena, eta gehienez hiru luzapenetarako aukera izango da, urte bakoitzeko bat (1+1+1+1 egitura), guztira gehienez lau urte. Luzapen bakoitza automatikoki egingo da, baldin eta alderdietako batek ez badu ezeztapen-jakinarazpena bidaltzen, amaiera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

5. Vigencia del contrato

El contrato tendrá una duración de un año desde la fecha de su formalización, con posibilidad de prórroga por períodos anuales hasta un máximo de 3 prórrogas (estructura 1+1+1+1), con una duración máxima de 4 años. La prórroga operará de forma tácita salvo que alguna de las partes notifique su voluntad en contrario con al menos 3 meses de antelación al vencimiento.

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

6. Datu pertsonalak babestea eta konfidentzialtasuna	6. Protección de datos personales y confidencialidad
Interpretazio-saioak egiteko bidaliko diren dokumentu guztiak konfidentzialak izango dira. Interpretazioan diharduten langileek eta enpresa adjudikaziodunak berak lanbide-sekretupean jardun beharko dute. Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko, eta ezin izango du kontratatutako lanen datuak edo informazioa bere onurarako erabili, ez eta hirugarrenei laga ere, Berrizko Udalaren idatzizko baimenik gabe.	Todos los documentos que se remitan para interpretación tendrán carácter confidencial. Personal intérprete y empresa adjudicataria actuarán bajo secreto profesional. La adjudicataria se compromete al cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y no podrá utilizar los datos o información de los trabajos contratados en su beneficio ni cederla a terceros sin el consentimiento escrito del Ayuntamiento de Berriz.

7. Adjudikazio-irizpideak	7. Criterios de adjudicación
Kontratuaren adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da, indarrean dagoen sektore publikoaren kontratuei buruzko legediari jarraikiz. Interprete-talderako honako gutxieneko betekizun hauek ezartzen dira eskaintzan: interprete titular bat gutxienez eta ordezko bat gutxienez, biak I. Eranskineko fitxa beteta aurkeztuta. Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuak izango dira. Lizitazioan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 100 puntu izango dira, honela banatuta:	La adjudicación del contrato se realizará mediante procedimiento abierto, conforme a la legislación vigente sobre contratos del sector público. En relación con el equipo de intérpretes, se establecen los siguientes requisitos mínimos: al menos 1 intérprete titular y al menos 1 intérprete sustituto, ambos con la ficha del Anexo I cumplimentada. Las ofertas que no cumplan estos requisitos serán excluidas. La puntuación máxima alcanzable será de 100 puntos, distribuidos como sigue:

Irizpidea *Criterio*	**Puntuazioa** *Puntuación*	**Evaluazio-mota** *Tipo de evaluación*
Irizpide kualitatiboak *Criterios cualitativos*	**20**	**Automatikoa** Automático
Eskainitako prezioa *Precio ofertado*	**80**	**Automatikoa** Automático
GUZTIRA *TOTAL*	**100**	**–**

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

7.1. Irizpide kualitatiboak (20 puntu)	7.1. Criterios cualitativos (20 puntos)
– Zinpeko interprete-gaikuntza (10 puntu): Taldeko interprete titularrak zinpeko interprete gisa jarduteko gaikuntza badauka, 10 puntu emango dira. I. Eranskinaren bidez egiaztatuko da. **– Esperientzia erakundeetan (10 puntu):** Enpresak administrazio edo erakunde publikoetarako interpretazio-zerbitzuetan akreditatutako esperientzia-urteak hartuko dira kontuan. Eskaintzan zerrenda dokumentatua aurkeztu beharko da. Honako eskala honen arabera puntuatuko da: • Urtebete baino gutxiago: 0 puntu • 1-3 urte: 4 puntu • 4-6 urte: 7 puntu • 7 urte edo gehiago: 10 puntu	**– Habilitación como intérprete jurado (10 puntos):** Si el intérprete titular del equipo cuenta con habilitación como intérprete jurado, se otorgarán 10 puntos. Se acreditará mediante el Anexo I. **– Experiencia en instituciones (10 puntos):** Se considerarán los años de experiencia acreditada de la empresa en servicios de interpretación para administraciones u organismos públicos. Deberá presentarse relación documentada en la oferta. Se puntuará según la siguiente escala: • Menos de 1 año: 0 puntos • 1-3 años: 4 puntos • 4-6 años: 7 puntos • 7 años o más: 10 puntos
7.2. Eskainitako prezioa	**7.2. Precio ofertado**
Gehieneko puntuazioa (80 puntu) eskaintza ekonomikoenari dagokio. Gainerako eskaintzak formula proportzional baten bidez baloratuko dira, honako hau: – *Puntuak = (Prezio txikiena / Prezio eskainia) × 80* Eskainitako prezioak ezin du lizitazio-prezio gehienekoa gainditu, hau da, 490 € saio bakoitzeko (BEZ gabe).	La puntuación máxima (80 puntos) corresponde a la oferta más económica. Las restantes ofertas se valorarán mediante la siguiente fórmula proporcional: – *Puntuación = (Importe mejor oferta / Importe oferta a valorar) × 80* El precio ofertado no podrá superar el precio máximo de licitación, es decir, 490 € por sesión (sin IVA).

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

I. ERANSKINA	ANEXO I

INTERPRETEAREN FITXA / FICHA DEL INTÉRPRETE — Nº ___	
Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	
NAN/IFZ *DNI/CIF*	

Gaitasun linguistikoak / Competencias lingüísticas (MCER/MECR)	
Hizkuntza / Lengua	**Maila / Nivel (B1 / B2 / C1 / C2) / Ama hizkuntza – Lengua materna**
Euskara / *Euskera*	
Gaztelania / *Castellano*	
Beste hizkuntza batzuk *Otras lenguas*	

Titulazio akademikoa (aukeratu) / Titulación académica (marcar)	
Gradua / lizentziatura *Grado / licenciatura*	**Itzulpengintza eta Interpretazioa** *Traducción e Interpretación* ☐ **Euskal Filologia** *Filología Vasca* ☐
Interpretazio-lanetan esperientzia egunetan (Soilik Itzulpengintza eta Interpretazioaz besteko titulazioetarako) *Experiencia en interpretación en días (Solo para titulaciones distintas al Grado en Traducción e Interpretación)*	**Egun kopurua:** *Número de días:*

Irizpide kualitatiboetarako titulazioa / Titulación para criterios cualitativos	
Zinpeko interprete gaikuntza *Habilitación interpretación jurada*	**Bai** *Sí* ☐ **Ez** *No* ☐
Enpresaren esperientzia administrazio-eremuan, urtetan *Experiencia de la empresa en ámbito administrativo, en años*	

Fitxa horretan adierazitako alderdiak dokumentu bidez egiaztatu behar dira aintzat hartuak izateko

Los aspectos referidos en la ficha deben acreditarse documentalemente para ser considerados.l

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Sinatzaile / Firmante: MIKEL MENDIGUTXIA REKAGORRI Data: 2026-05-06 11:06:59(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:06:59 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2026-05-06 11:08:58(UTC) Fecha: 06/05/2026 11:08:58 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f4093024-3aae-498d-8e29-e85b061ae06c} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.